

REAS Euskadi, EAEko diru-sarreraren bermerako eta gizarteratzeko politiken aurrean

1. REAS Euskadiren ustez, **diru-sarreraren bermerako eta gizarteratzeko politika indartu** behar da giza eskubideak eta herritarrak defendatzeko esparruan, eta, horrez gain, **babes sozialeko euskal sistema** jarri behar da abian, benetan **unibertsala, inklusiboa eta kalitatezkoa** izango dena. Gora doan pobrezari eta bazterkeria sozialari aurre egingo dien, eta gizarte bidezkoagoa eta kohesionatuagoa eratzeko oinarriak finkatuko dituen sistema. Gure ustez, krisialdi ekonomikoko eta ezegonkortasunez eta ziurgabetasunez beteriko une hauetan, hori izan behar da **instituzioen eta politika eta aurrekontu publikoen lehentasunezko neurri nagusia**.

2. **Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) arautzeari eta kudeatzeari** dagokionez, hau eskatzen dugu:

- **Murrizketa ekonomikoak eta 2011ko erreforma** egin zenetik orain arte DSBE eskuratzeko **gogortu diren neurriak lehengoratzeari** (aurrekontuaren %7 murriztu da, eskuratzeko murrizketak izan dira eskatutako erroldatze-aldia luzatuta, etab.).
- 2017an **DSBE igotzea, lanbide arteko gutxieneko soldataren arabera**, %8, prestazioa arautzen duen legea atera zenetik egin den moduan. Gure ustez, eskubidetzat hartzen den prestazio sozial baten hornidura ezin da utzi, urteko aurrekontuetan erabilgarri dagoen diru-kopuruaren menpe edo gobernu batek une jakin batean duen politikaren menpe.
- DSBE jasotzen duten edo jaso dezaketen pertsonak **hedabideetan, gizartean eta instituzioetan kriminalizatzeko dauden mezu eta neurri guztiak indargabetzea**: aztarna digitaleko sistema sartzeari, "iruzurraren aurkako unitatea" sortzea (nahiz eta hori %1etik beherakoa izan, zenbatespenen arabera), orokortu ezin diren salbuespeneko albisteak zabaltzea, gizartean funtsik gabeko alarma pizten dutenak...
- **Prestazio horren estaldura eta sarbidea jende gehiagori zabaltzea, gaur egun horren beharra baitute**, eta, horretarako, eskuratzeko eskakizunak, bizikidetzako unitatetzat zer hartzen den, adina, etab. berrikustea. Prestazioa behar duen inor ez da eskubide hori gabe geratu behar. Ildo horretan, bereziki arbuizaten ditugu gehiegizko erroldatze-aldien eskakizuna duten proposamenak, eta, batez ere, bizikidetzako unitate bakoitzeko DSBE bakarria kobratzera murriztu nahi duen proposamena (bizikideen artean familia-loturak izan nahiz ez izan). Praktikan, proposamen horren ondorioz, pisua ezinbestean partekatzen duten pertsona asko (ohiko egoera, zailtasun ekonomikoak eta etxebizitza lortzeko zailtasunak dituzten

pertsonen artean) laguntzen sistematik kanpo geratuko dira, hau da, inolako estaldurarik gabe.

- **Prestazioaren izapideak bakuntzea eta erraztea**, oztopo burokratikoak, eta prestazioa emateko edo kobratzeko arazoak eta atzerapenak kenduz, eta administrazioak prestazioaren hartzaileei edo eskatzaileei egin ahal dieten tratu txar guztiak desagerraraziz.

Azken batean, proposatzen dugu sistema hobetzea, eta euskal gizartearen egungo egoerara eta –batez ere, krisialdia hasi zenetik– dauden gizarte-bazterketako eta/edo laneko ezegonkortasuneko modu desberdinetara egokitzea.

3. Bestalde, gure ustez, baldintzarik gabekoak diren eta bizitza duina izateko aski diren prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea bermatzeaz gain, **legeak finkatzen duen beste eskubide bat ere bultzatu behar da: gizarteratzeko eskubidea, bi alderdiek osagarriak izan behar dutelako**. Ildo horretan, hau egin behar da:

- a. Pertsona guztiek **kalitatezko zerbitzu publiko unibertsalak** eskura ditzaten bermatzea.
- b. **Giza eskubide guztien izaera integrala eta zatikatu gabekoa** ahalbidetzea (etxebizitzari, hezkuntzari, osasunari eta abarri lotutakoak ere bai).
- c. Komunitateko bizitza sozialean eta politikan **benetan parte hartzeko behar diren mekanismoak** eta, azken baten, herritartasun-eskubideak sustatzea.

Ikuskera horretatik, **DSBE ikuspegia defendatzen eta sustatzen** duen gizarteratzeko sistema baten alde gaude (**eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak**).

4. Oso garrantzitsutzat hartzen dugu **enplegu inklusiboko estrategia garatzea**. Enpleguak ez du baldintzatu behar beste eskubide sozial batzuk eta inklusioko eskubideak eskuratzea, baina tresna izan behar du eskubide horretaz baliatzea ahalbidetzeko. Oso kezkarria iruditzen zaigu gizartean baztertuta dauden edo horrela geratzeko arriskuan dauden pertsonak lan-merkatutik baztertzea, bai eta eskuratzen dituzten enpleguetan dagoen ezegonkortasuna edota pobrezia ere.

Lan duina eta inklusiboa sustatzen duen lan-politika batek baizik ezin izango du lortu kohesio eta inklusio soziala indartzea. Gure ustez, lehenasuna eman behar zaie biztanleria-sektore horiek enplegu duina eta normalizatua eskuratzea sustatzen duten programei, eta, horretarako, gizarteratzeko enpresak eta lagundutako enplegurako tresnak bultzatu, bermatutako enpleguko programak garatu, eta ekonomia sozial eta solidarioan oinarritutako jarduerak sustatu behar dira.

5. Gure iritziz, adierazitako gaietatik harantz joz, **aldaketa sakon bati ekiteko** beharra jarri behar dugu eztabaidaren erdian, kontua ez baita bakarrik eskubide sozialen kudeaketa eta bermea edota lan-merkatuaren erregularizazioa aldatzea –auzi horiek garrantzitsuak badira ere–, baizik eta, horrez gain, **egiturazko eredu sozio-ekonomikoa bera** aldatzea, bera baita eskubide sozialen eta enpleguaren euskarria, eta baldintzatu egiten baititu.

Ezin diegu auzi horiei ekin, **egitura sozial, politiko eta ekonomikoetan aldaketak bultzatzen ez baditugu, pertsonak eta bizitzaren iraunkortasuna lehenasunezko hartzen dituen eredu batera igartzeko presta gaitzen**.

Ekonomiak zeregin instrumentala izan behar du, herritarrek parte hartzeko eta erabakitzeko dauden esfera demokratikoen mendean, eta pertsona guztientzako bizi-baldintza duinak garatzeko prozesuari lotuta, dagozkien eskubide guztiez balia daitezten.

Azkenik, bat egiten dugu gizarteratze-esparruko hainbat sarek, bazterkeria sozialaren kontra ari diren plataformek, erakunde sozialek eta sindikalek, eta hirugarren sektore sozialeko erakundeek sarrerek bermatzeko eta gizarteratzeko gaietan egin dituzten proposamenekin. Bat egiten dugu, bereziki, gure partaidetza duten sareek egin dituzten proposamenekin, esate baterako, ekaINek (Euskadiko Gizarteratzeko Sareak), Sareen Sareak (Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala) eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak egin dituztenekin.

2017ko iraila

REAS Euskadi

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea
Red de Economía Alternativa y Solidaria